

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2021eko urtarrilaren 22ko Alkatetzaren 32. ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, 2020-2021 ikasturterako diru-laguntzen deialdia egiten da, euskararen ikaskuntza eta euskararen ezagutza eta ikaskuntza sustatzeko proiektuak norgehiagoka prozeduraren bidez ordaintzeko

BDNS(Identif.): 546161

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/546161>).

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke:

— Euskararen ikaskuntza: Ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak:

a) Zigoitiko udalerrian erroldatuta egotea ikasturtearen hasieran, eta ikasturtea bukatu arte.

b) 16 urte beteta izatea, ikastaroan izena ematen den unean.

c) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntze Erakundeak (HABE) aitortutako ikasketa-zentrotoren batean edo Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) matrikulatuta egotea.

d) Emandako orduen ehuneko 80ko gutxieneko asistentzia izatea.

— Euskararen ezagutza eta ikaskuntza sustatzen duten euskararen aldeko proiektuetarako: euskararen sustapena sustatzen duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak, nahiz eta horien helburu nagusiak ez izan horiek bakarrik; beren jarduera-eremuak Zigoitiko udalerrian eragina dutenak, egoitza soziala udalerriri horretan izan ez arren.

Zigoitian egoitza soziala duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei Zigoitiko Elkartearen Udal Erregistroan inskribatzeko eskatuko zaie, eta Zigoitik kanpo egoitza soziala dutenei, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzeko.

Pertsonalitatearik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen taldeen kasuan, publikoak zein pribatuak izan, berariaz jaso beharko dira, bai eskabidean, bai emakida-ebazpenean, elkarteko kide bakoitzak bere gain hartutako betearazpen-konpromisoak, bai horietako bakoitzari aplikatu beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa, horiek ere onuraduntzat joko baitira.

Bigarrena. Helburua

Diru-laguntzaren helburua euskara ikastearen ondoriozko gastuak eta euskararen ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen duten euskararen aldeko proiektuak finantzatzen laguntzea da.

Honako hauek lagunduko dira diruz:

— Euskara ikasteko ikastaroen matrikula-gastuak: 2020ko urritik 2021eko irailera bitartean egindako udako ikastaro trinkoak eta barnetegiak.

Kanpoan geratzen dira joan-etorrien gastuak eta edozein ikastaro-modalitatetako mantenu-eta ostatu-gastuak.

— 2021ean euskararen ezagutza eta ikaskuntza indartzeko proiektuak antolatzearen ondoriozko gastuak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Diru-laguntza hauek emateko oinarri arautzaileak euskararen ikaskuntza eta euskararen ezagutza eta ikaskuntza sustatzeko proiektuen oinarriak arautzen dituen ordenantza espezifikoa daude jasota. Ordenantza 2016ko apirilaren 20an onartu zen, eta 2016ko ekainaren 6an argitaratu zen Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (64. zk.).

Diru-laguntza horiek emateko prozedura norgehiagoka-erregimenean egingo da, aurkeztutako eskabideak erkatuz, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera lehen-tasun-hurrenkera ezartzeko, eta irizpide horiek aplikatuz baloraziorik handiena lortu dutenak esleituko dira, hurrengo puntuan ezarritako mugarekin.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen arabera aurkeztutako eskabideen ondorioz ematen diren laguntzen finantzaketa 335.480.000 aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio, 2021erako aurrekontuko "euskara ikasteko bekak" kontzeptuan.

Laguntzen gehieneko zenbatekoa 335.480.000 aurrekontu-aplikazioan ezarritako kredituaren zenbatekoa izango da, 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren arabera.

Aurrekontua betearazteko arauaren arabera, gastuen aurrekontuko 335.480.000 aplikazioan sartutako ordainketa-kredituak handitzekoak dira, eta diru-laguntza horretara bideratutako zenbatekoa 2.000 euro handitu ahal izango da, deialdi berririk egin behar izan gabe, betiere dagokion aurrekontu-aldaketa izapidetu bada.

— Euskara ikasteko diru-laguntzak: matrikularen kostuaren ehuneko 100 edo ondorengo koadroan ikastaro mota bakoitzerako ezarritako gehieneko kopurua, matrikularen kostua handiagoa bada:

IKASTARO MOTA	GEHIENEZKO DIRU-LAGUNTZA
Ohiko ikastaroak (2020ko urrititik 2021eko irailera, 2-3 ordu egunero)	850 euro ikastaroko
Ikastaro trinkoak (2020ko urritik 2021eko irailera, gutxienez egunean 5 ordu)	1.250 euro ikastaroko
Barnetegiak (gutxienez egunean 5 ordu)	150 euro, hileko ikastaroko
Autoikaskuntza-ikastaroak (2020ko urritik 2021eko irailera)	650 euro ikastaroko
Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroak	150 euro ikastaroko

Ohiko ikastaroak eta barnetegiak egiteko diru-laguntzak batera eman ahal izango dira, baldin eta batzuek eta besteek helburu akademiko komunak badituzte.

— Euskararen ezagutza eta ikaskuntza sustatzen duten euskararen aldeko proiektuetarako diru-laguntzak: proiektuaren kostuaren ehuneko 100era arte, eta ezingo du gainditu dagokion aurrekontu-aplikazioan urtero esleitutako zenbatekoa.

Bosgarrena. Eskaerak eta justifikazioa aurkezteko epea

Euskara ikasteko eskabideak aurkezteko eta diru-laguntza justifikatzeko epea, hurrengo puntuan adierazitako dokumentazioarekin batera, 2021eko azaroaren 1ean bukatuko da.

Euskararen ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen duten euskararen aldeko proiektuetarako eskabideak proiektua hasi baino hilabete lehenago aurkeztuko dira, 2021eko azaroaren 1a baino lehen, betiere. Diruz lagundutako proiektua amaitu eta hilabeteko epean aurkeztu beharko da gastuaren justifikazioa, betiere 2022ko otsailaren 1a baino lehen.

Seigarrena. Bestelako datuak

Eskaerarekin batera ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

— Euskara ikasteko dirulaguntzak:

1. Udalak emandako eskaera ofiziala.

2. Ikastaroa egin den ikastetxearen ziurtagiria, honako datu hauek adierazita: hasitako ikasturtea eta amaitutako ikasturtea, ikastaroaren guztizko ordu-kopurua eta ikaslearen bertaratze-ehunekoa, ikastaroaren hasiera- eta amaiera-datak eta matrikularen guztizko kostua.

Barneratuen kasuan, bereiz adierazi beharko dira matrikula-gastuak, mantenu-gastuak eta ostatu-gastuak.

3. Matrikula ordaindu izanaren egiaztagiria.

Autoikaskuntza ikastaroen kasuan:

1. Udalak emandako eskabide ofiziala.

2. Ikastetxearekin sinatutako kontratuaren kopia, datu hauek jasotzen dituen: matrikularen zenbatekoa, kontratatutako aldia, emandako ordu-kopurua, egindako mailak eta gaingitutako maila.

3. Matrikula ordaindu izanaren egiaztagiria.

4. Gutxienez 152 orduko bertaratze-egiaztagiria, betiere HABEk ikastaroa autoikaskuntzako ikastaro gisa onartzeko eskatutako ordu guztien ehuneko 80. Horretarako, elkarrizketa-orduak, tutoretzak eta banakako lana zenbatuko dira.

— Euskararen aldeko proiektuak, euskararen ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen dutenak:

1. Udalak emandako eskabide ofiziala.

2. Egin beharreko jarduerak zehaztuko dituen proiektuaren memoria, helburuak jasota.

3. Proiekturako aurreikusitako gastuen eta sarreraren aurrekontua.

Ondategin, 2021eko urtarrilaren 26an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA